

EZ OHIKO BATZAR NAGUSIA ALTZON

MILA URTE IPUSCUATIK GIPUZKOARA: IRAGANETIK ETORKIZUNERANTZ

Altzoko alkate Xabier Olano;

Eider Mendoza, diputatu nagusia;

Imanol Pradales, lehendakaria, agur t'erdi;

Eta ongi-etorri guztiok, Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko presidentek eta Bizkaiko eta Arabako Batzar Nagusietako buruak; Gipuzkoako batzarkideak, Gipuzkoa, Donostia eta Iruñeko alkateak, eta herritarrak, egun on.

Pozgarria hemen elkartzea eta eskerrik asko etortzeagatik. Eta eskerrak Altzoko parrokiari, Bilkura eliza honetan egiten uzteagatik.

Has gaitezen bada. Xabier Olano, Altzoko alkate jauna, zuk duzu hitza.

.....

Eskerrik asko. Eider Mendoza, Gipuzkoako diputatu andrea, zurea da hitza.

.....

Eskerrik asko, Mendoza diputatu nagusia.

Altzo-Azpiko San Salvador honen azpiko elizatik gatz, Batzar Nagusien Liburuan egun honen oroigarri-hitzak idaztetik. Gaila Ipuscua andreak eta bere senar Gartzia Azeariz Ipuscuako jaunak, Altzoko antzinako eliz atarian eman zuten beren legatua, 1.025. urtean, Iruñeko errege Antso Nagusiak berretsia izan zena, Gipuzkoaren izen zaharra jotzen dena idatzita heldu zaigularik.

Hala bada, Ipuscoatik Gipuzkoara igo gara. Iraganetik gaur egunera. Eta bihar zer? Ezin esan. Baina gauza bat: aspaldi handian izan ginenak argi egiten digu etorkizunerantz, aurrera egiteko.



Eta hemen gaude, XXI. mendean. Munduko gorabeheren eraginpean Gipuzkoa, hain txikia, eta hain txikia Euskal Herria... baina bagara, ez beste herrialde eta nazioak baino gehiago, baina ezta gutxiago ere. Baina nola liteke iraun izana? Zer erakusten digu iraganak Herri izaten jarraitzeko mundu gatazatsu eta zabal honetan? Zer ikasgai ematen dizkigute arbasoek demokraziaren krisialdian, ezkerretik eskuinera populismoak harrotzen eta autokraziak zabalitzen ari direnean?

Ipuscuaren mila urtekoa aukera egokia iruditzen zait euskal demokrazia-ereduaz eta euskal identitateaz pentsatzeko. Bai barrura begira, gure herrian bizi ditugun aldaketei erantzuteko bai mundura begira, beste herriekin batera izaten jarraitzeko.

Aldaketa teknologiko handien aroa bizi dugu. Atzo bertan IBM konputagailu kuantiko inauguratzen izan ginen. Historian zehar gipuzkoarrak eta euskaldunak ondo moldatu izan gara aurrerapenak asmatzen edota ikasten, inguru zabalari adi eta berrikuntzetara egokitzeko prest. Industriak garrantzia du eta kultura bat da Gipuzkoan eta Euskadin, ez bat-batean lortua, saiatuta baizik, ekintzaileek egina eta erakundeek eragina, batera. Ez gara bakarrik baina gure ezaugarri handietako bat da gizarteko ekimenak herri ikuspegiarekin uztartzea, herri erakunde eta gizartea elkarlanean.

Aurrerapen berri bat puri-purian dago: adimen artifiziala. Esaten ari dira ze lagungarria den, adibidez, osasungintzarako. Ohartarazten ere ari dira adimen artifiziala gerrarako erabiltzearen kalteez. Historian zehar gipuzkoarrak eta euskaldunak ondo moldatu izan gara aurrerapenak asmatzen. Adimen artifiziala baliabide bat da, datu ikaragarri azkar kudeatzeko gai. Baina giza adimena datuak baino gehiago da. Adimen artifizialak funtsezko giza alderdiak falta ditu: gorputza, bihotza eta pentsamendu kritikoa, erabakimena, giza harremanak... Ez dago adimen artifizialik giza jakinduria hori ordezkatzeko duenik.

Etorkizuna eraikitzeko badugu nondik eraberritu: euskal nortasunaren ezaugarriak eguneratzetik. Identitatea ez da globalizazioarekin datorren aniztasunaren aurkakoa, alderantziz baizik. Uniformizazioa bilatzen dutenak jartzen dira horren kontra, baina beren nortasunari uko egin gabe. Herri edo nazio indartsuek, txikiek nahiz handiek, ez diote beren buruari uko egiten. Beren nortasuna azpimarratzen dute mundu globalean. Eskubide bera dugu guk ere “gure erakunde propioen gerizpean garatzen joan zen bizimodu kolektiboa” izaten jarraitzeko.

Horiek horrela, identitatean denak balio al du? Zeri eutsi eta zeri utzi? Zerk lagunduko digu Gipuzkoa eta Euskal Herri izaten jarrai dezagun eta zerk oztopatuko dio herri honi geroan irauteko.





Lehenbizi, euskara.

Ez naiz aspertuko Koldo Mitxelenaren hitzak aipatzen: *“Creo que si el Pueblo Vasco existe hoy con conciencia de pueblo se debe, sobre todo, a la lengua. (...) La lengua es la historia viva de un pueblo, y el euskera constituye la historia viva del pueblo vasco, porque si se habla del País Vasco como de una entidad, de una cierta unidad, aunque de límites más o menos variables, es gracias a la existencia de una lengua distinta.”* Eta eransten du: *“desde el punto de vista individual el problema es que socialmente el hecho de hablar una lengua o de sentirla como propia da a uno (...) conciencia de pertenecer a un determinado pueblo.”*

Ipuscua-Azenariztarrek beren ondasunak utzi zituzten ondaretzat. Guri gure aurrekoek euskara utzi digute, beste ezerk ez bezala euskaldun egiten gaituena. Eta Mitxelena jakintsuari jaramon eginez, euskara biziberrituz euskaldunak euskaraz egin ahal izatea ziurtatzea da herri-ordezkarion zeregin politikoa XXI. mendean.

Beste ezaugarri bat: berdinzaletasuna. Gipuzkoan oso nabarmena da ezaugarri hori. Kaparetasun unibertsalak gipuzkoarrak eta herriak hartzen zituen antzinatik. Euskal demokraziaren eredia berdintasunaren bidez jorratu zuten gure arbasoek, baina ez batetik jaunak eta bestetik jopuak; euskaldunak denak berdintzea aukeratu zuen, baina ez beheraka, goraka baizik: denak parekide eta mendekorik ez. Emakumeen berdintasuna ere beste alde batzuetan baino aurreratuago zegoela ikusi zuen Humboldték, negozioetan gizonekin batera nola aritzen ziren jasoz, txundituta geratu zelarik euskararekin eta herri honetan aurkitu zuen aginte-erarekin orain 200 urte baino gehiago. Berdinzaletasun hau akuilu izan daiteke gaur egun ere emakumearen alde egiteko.

Giza duintasunaren bermea ere ageri zaigu gure iraganean. Euskal lege zaharrek aginduta, entzun egin behar zitzaion akusatuari eta debekatua zegoen inor torturatzea, duela 500 urte. Martin Ugaldek kontatzen du giza duintasunaren beste adibide bat, Tuterako ordenantzetako agindua: lan-eguna 8 ordukoa izatea, eta lan gogorak zirenean, 7 ordukoa. XV. mendea zen Nafarroako erresuman.

Hortaz, euskarari bai, berdinzaletasunari bai; giza eskubideen bermeari ere bai. Balio horien gainean jauzi bat egin dezakegu orain ere. Joxemiel Barandiaran jakintsuak dioen bezala: *“jauzia eginda zutik geratuz eta aurrera egiteko gai”* izateko. Herriak egin egiten baitira, jendeak elkar hartuz eta elkartasunez bizitzeko, Tolosan egin genuen bezala soka-dantzan edo Berastegin Urmugako ekitaldian. Aniztasunaren aldi honetan, eta munduko ia 200 herrialdeetako pertsonak gurera datozen honetan, elkartuko gaituen identitatea behar dugu. Euskal nortasunaren alderdi horiek lagungarri ditugu bizikidetza





berritzeko, datozenek beren jatorria zainduz gure herri zaharrear eta beren herri berrian errotu daitezten, dagozkien eskubideekin eta betebeharrekin. Tolosan bezala, hemen zaudete Gipuzkoako Alkateak. Azpimarratu nahiko nuke tokiko politikaren garrantzia Euskal Herri osoan. Milesker zuen lan bikainagatik!

Azken alderdi bat nabarmendu nahi dut, euskal nortasunaren parte dena. Herri izateari eutsi badiogu, euskal herri izateko nahia oso indartsua delako da, eta, aldi berean, herriari eutsi dioten bitarteko politiko garrantzitsuak izan ditugulako, gure askatasuna bermatzeko eta erabakimena bideratzeko: Foruak, ez emanak, eskubideak baizik; eta Batzar Nagusiak eta Nafarroako Gorteak. Hona euskal demokraziaren iturria. Konstituzionalismoren aurrekoak diren gure “eskubide historikoak” aintzat harturik eta eguneratzeko prest Europar Batasunari begira.

Si se me permite hoy la licencia, en Altzo, donde crecen los tres tejos que plantamos en marzo como signo de Gipuzkoa, cerca de los confines del haya de Imaz y del mítico collado de Zarate, donde los riscos del pico “Balerdi” refugian al quebrantahuesos, nuestros árboles también pueden tener, metafóricamente, un significado político. Tanto para nosotros como para otros pueblos. Así lo recogía J. J. Rousseau en su “Contrato social” (Lib. IV, capít. I), bajo el título: “Que la voluntad general es indestructible”:

"cuando en el más feliz de los pueblos del mundo se ve a tropas de campesinos arreglar los asuntos del Estado bajo un roble y conducirse siempre sabiamente, ¿puede uno impedirse despreciar los refinamientos de las demás naciones, que se vuelven ilustres y miserables con tanto arte y misterios?"

Baina, jakina, denak ez du balio. Europan eta nazioartean bakean eta demokrazian bizitzeko baldintzak koloka ikusten ditugunean. Gaur indarraren legea nagusitzen denean, mezu gaiztoa bidaltzen da Errusiako Gobernuak Ukrainan eraso-gerra eginez eta Israelgo Gobernuak Gazako palestinarren genozidioa, nahiz eta, zorionez, gerra gelditu den, eta oxala bakearen hasiera den. Indarkeria ez da inoiz bide ona. Bide itsua da. Bortxazko bideek, Julio Caro Barojak dioenari jarraituz, ez digute uzten elkarrekin identifikatzen, zatitu egiten dute herria eta atzerakada eragiten. Baztertu beharreko identitatea da indarkeria. Ondo asko dakigu.

Gizakiak elkarte bat osatzen duenean bizikidetza eta izatea ematen dioten alderdiak ziurtatzeko antolatu egiten da. Erakundetzea jendea defenditzeko eta bere buruaren jabe izateko borondate askearekin lotu dugu, lehen eta orain. Eta hain zuzen, horrek balio handia du gaur egun, eskuinetik eta ezkerretik populismoak astindutako garai hauetan.





Populismoa erakunde demokratikoen etsaia da. Demokraziaren eta herri-erakundeen etsai porrokatu honek ez du atsedetik hartzen, harik eta herria menderatzen duen arte. Honi aurre egiteko gaude, herriaren askatasuna eta gure buruari emandako erakundeak zabalduz. Maite dugu Gipuzkoa eta Euskadi osatzen duen gure herria. Herri-maitasunak eta -iragan onak gida gaitzatela politikan gabiltzanak eta herria, etorkizunean irauteko. Eta Orixek “Euskaldunak” poeman idatzi bezala:

ZATOZKIDA, GOI-ARNAS.
EIZU NEREKIN LAN,
ERRI BATEN ARNASA
MAMITU DEZADAN.
GEROAK ESAN BEZA:
ERRI BAT IZAN ZAN;
EDO-TA ATS EMAIOGUN.
ONTAN IRAUN DEZAN.

Amaitzeko, Imanol Pradales lehendakari jauna, zuri dagokizu hitza hartzea.

.....

Eskerrik asko, lehendakari.

Honela bukatutzat emango dugu Batzar Nagusien 2025eko urriaren 15eko Bilkura berezia, Ipuscuako jaun-andreen legatuaren faksimila emango zaizuelarik. Milesker guztioi!

Xabier Ezeizabarrena Saenz

Altzo-Azpi, 2025-10-15

